



GORILA BAT

LIBURUAREN FITXA

BROWNE, Anthony. *Gorila bat: zenbatzeko liburua*. Pamiela-Kalandraka, 2012

Aurkezpena

Lehenengo begirada batek zenbatzeko liburu bat erakusten digu, zenbatzeko aitzakia primateak dira: gorila bat, bi orangutan... Munduan primate asko dago eta horren inbentario bat osatzen du autoreak, erretratu ezin hobeagoren galeria bat aurkeztuz. Baina bukaera aldera autorearen erretratu bat agertzen da, bera ere primate bat dela aldarrikatuz, hamaikagarrena, alegia... Azkeneko orrialdean bera bezalako beste primate askoren erretratua eskaintzen digu, denak bere familiakoak, eta zure familiakoak.

Kontaketa

- Orriz orri, gozatu primateen erretratuekin eta bakoitzaren izenarekin.
- Azkeneko orrialdeetan, behatu autorearen erretratua eta jende desberdinen erretratua.
- Denak familiakoak gara?

Proposamenak luzatzen

- Kontaketa desberdinak bideratu: txakur arrazak adibide hartuta
- Ilustrazioez gozatu, animaliak agertzen diren beste ilustrazio batzuk bilatu
- Antzekotasunaren araberrako sailkapenak egin: Iledun, lumadun, eskatak, lau hanka, bi hanka...

Proposamenak zehazten

- Zure familia marraztu